

## Plentzia, lege zaharraren krisialdia: lehen gerra karlista, borroka zibilaren adierazle (1833–1839)

---

Agirreazkuenaga Zigorraga, Joseba<sup>1</sup>

Plentzia Bizkaiko kostaldeko hiria da. 1833an karlistek eragin zuten gerra, aztertzen da. Giro orokorra adierazten da, Europa eta Espainiako erresumaren egoera eta ondoren tokian tokiko historian murgiltzen da. Gerraren lehen egunak ikertzen dira eta matxinada bat nola gerra zibila bihurtu zen erakusten da. Plentziak karlisten setio egoera bizi izan zuen eta esperientzia honek gerra zibilaren giroan ondorio latzak eragin zituen.

Hitz-Gakoak: Plentzia. Gerra Karlista. Tokiko historia. Setioa.

Plentzia es una ciudad costera de Bizkaia. El objeto de estudio es la guerra iniciada por los carlistas en 1833. El trabajo da cuenta de la situación en que se encontraban Europa y el reino de España, y a continuación se centra en la historia local. Se estudian los primeros días de la guerra y se muestra como una rebelión se convirtió en guerra civil. Plentzia vivió una situación de asedio por parte de los carlistas, y esta experiencia acarrearó duras consecuencias en un ambiente de guerra civil.

Palabras Clave: Plentzia. Guerra Carlista. Historia local. Asedio.

Plentzia est une petite ville de la côte bizkaïenne. 1833 : les Carlistes déclarent la guerre. C'est une immersion dans la situation de l'époque de la France et de l'Espagne, et de l'histoire des pays limitrophes. Témoin privilégié des premiers jours de la guerre, le lecteur assiste à une révolte qui tourne en guerre civile. Assiégée par les Carlistes, la ville de Plentzia subira toutes les conséquences d'un fait aussi tragique.

Mots-Clés : Plentzia. Guerre carliste. Histoire locale. Siège.

---

1. UPV/EHU. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Historia Garaikidea Saila. Sarriena, z/g. 48940 Leioa. E-mail: joseba.agirreazkuenaga@ehu.es

## 1. SARRERA

Hitzaldi honen gaia Gonzalo Duok jarri zidan, gogoeta bat egiteko eskatuz: lehenengo gerra karlistan Plentziak izan eta bizi izan zuen egoera, hau da Plentzia 1833 eta 1839 urteen bitartean. Beraz, lehenengo galdera gerra izango da. Zer gerra mota da hori? Nolako gerra gertatu zen? Hau definitzen saiatuko gara.

Baina hori ondo ulertzeko jakin eta kontuan eduki behar dugu, bai ikuspegi mikrohistoriko bat, azpikoa, ohiko eguneroko mundu eta bizimoduak, Plentziari buruzkoa alegia, eta aldi berean Espainia, Europa arloko ikuspegi bat ere, makro historikoa. Eta Europa esaten dugula, mundu mailakoa bihurtzen zaigu. XIX mendean, oraindik Europa munduko ardatza baitzen.

Tokian tokiko historiari abiatuz, lehenengo eta behin hemengo udaletxea, Gonzalo Duo bitartekari fina eta eragilea ere jakina, zoriandu nahi dut, tokian tokiko eta herriaren historiari arduratzen delako, eta horren adierazle dira liburutegia edo museoa. Zorionak ekimen honegatik. Herri guztien helburua beharko luke izan, liburutegia eta museoa izatea, azken batean komunitatearen iragana eta geroaren arteko zubi iraunkorra dugulako. Eta gizakiok premiazoak ditugu honelako erreferentzi guneak, geure bizimodua antolatzeke geure gogoak indarrean mantentzeko.

## 2. TOKIAN TOKIKO HISTORIAREN INGURUNEA

Azterketa bat egiterakoan, Plentzia non dagoen kokaturik ikusi behar dugu. Esparru geografikoa materia da baina materia horretan pertsonak eragina izaten dute, eta eragin horren bidez beste paisaia batzuk sorten dira. Beraz, esan genezake paisaia aldatzeko dugula, garaian garaiko gizakien ekimenez. Bi argazkietan ikusi dugun paisaia gaurkoarekin konparatuz, batez be aldatuta materialak begi bistakoak izan direla antzeman dezakegu, bereziki etxegintzan. Baina aintzat izan behar dugu Plentzian bizi izan den giza komunitatearen baitan aldatuta sakonak gertatu izan zirela. Komunitate guztietan jarraipenezko kate begiak ditugu eta aldi berean etenak, apurketak.

Historialarion lana, jarraipen eta iraunkortasun horiek zeintzuk diren argitzea da. Zenbait ezaugarri urte-urtez eta belaunaldi-belaunaldiz irauten dute. Horregatik historia ez da iragana, ez da pasatutako kontu bat, historia eguneroko bizimodua dugu, iraunkortasuna eta aldatetaren arteko geldiezinezko tirabira. Gu belaunaldi bezala beste batzuen ondokoak gara, grabitazio legea giza komunitate eta pertsonen baitan nabarmentzen da. Aldaketak eta iraupenak aldi berekoak ditugu, lehen bistaz uste izan arren dena aldatzen doala, baina eten gabeko saihestu ezinezko aldatuta horretan, aldatuta horixe dugu iraunkortasunaren elementua. Baina aldatetaren erritmoak, fenomeno bakoitzaren *tempus* propioa azaltzen saiatu behar dugu. Horregatik 100, 200 edota 1000 urte sarritan Europako historian ez da hainbeste urte, giza esperientziak eta bereziki giza grinak berdintsuak izaten baitira.

Beraz, Plentziako gizartea aztertzerakoan ikusten ditugun zatiketarik tirabirak eta ikuspegi kontrajarriak. Giza komunitate bati dagokiona alegia. Sarritan entzuten da gaur egunean Euskal Herria zatituta dagoela eta jende artean tirabirak eta abar daudela. Gure uste

ustela dugu pentsatzea iragan batean bakea armonia eta kidesasuna zegoela. Salbazioko erlijioen ondoriozko kontakizuna dugu berau, uste izatea iragana hobea izan zela. Ilusio ederra baina ez zuzena. Baina XIX mendera bagoaz, jadanik zatiketa nabarmenak zeuden Plentziako gizarteetan. Alde batetik handikiak zeuden eta bestetik herritar xumeak eta soldatapekoak sarritan matxino bihurtzen zirenak. Matxinoa herri guztietan nortasun handiko pertsonaia dugu. Izaera sozial baten definizioa dugu. Ez da historialarion asmakizun bat. Matxinadetan argi eta garbi adierazten ziren. Eta karlistaren hastapenean, matxino kulturaren adierazpenak agiri zaizkigu. Adibidez, maizterrak baserri jabe izan nahi dute eta lurgabeak, bizimodu hobea baten esperantzaz, lur jabe izateko itxaropenean izaten ziren. Hala ere, zatiketa horiek nabarmendu egiten dira bizilekuaren arabera, horren eraginez esperientziak desberdinak izango direlako, gaur egunean ere gertatzen den moduan. Matxinoak, azpiratuaren esperientzia bereganaturik eta barneraturik zuen.

Argi dago ez dela berdin kostaldean bizitzea, baserri batean edota mendian, eta ez dela berdin ere beheko herrian, *beterrian* edo *goierrian* bizitzea. Baina hori ez bakarrik hemen, munduko gune guztietan gertatzen den fenomeno da. Adibidez, Eskoziara baldin bazoazte, beste horren beste. *Low-land* aldean beterrian dagoen bizimodua, Edinburgh edo Glasgow horretan bizi direnen ohiturak eta antolaketa, *high-land* edo goierrian, mendi aldeko dinamika eta esperientziekin alderatuz gero, desberdinak dira.

Beraz, Plentzia hirigune moduan beterrria dugu, eta horrek markatu egingo du. Kostaldean egonik, dinamika zeregin berezi batzuk izango ditu, eta Plentziaren nortasuna itsasoaz eta itsas adarraren eskualdean eratuko da.

Gainera Plentzia bertoko bizilagunen irudipena edo imaginarioa, itsas esperientziadunak eta itsas famili batekoak izanik, ez da Plentziako herrira mugatzen. Kostaldean mugikortasuna errazagoa dugu eta mugak ez dira hain nabarmenak. Joan etorriko eraginak nabarmendu egiten dira. Bestelako esperientzia irekia da aukeraz beterikoa, malguagoa, *goierriko* bizimoduekin parekatuz gero. Itsasoarekin harremanetan bizi zen biztanleriaren beste berezitasunetako bat *fatum*, patuan edo halabeharrezkoan sinistea dugu, saihestu ezineko patua. Itsasoan dabilena beti dago bizitza eta heriotzaren artean, ez dago segurtasunik, inork ez daki une batetik bestera, bat batean, zer gertatu daitekeen eta horrek ere markatu egiten zuen itsas inguruko biztanleen giza nortasuna eta komunitatea.

Horregatik Plentzialdeko eskualde hau aztertzerakoan, eta bereziki bere inguruak berebiziko garrantzia izango du, herriaren bizimodu jarduerak aipatzea: Alde batetik batzuk itsasorantz egingo dute. Aldi berean, beste batzuk barrurantz lehorrera begira kokatuko dira. Eta lehorra esaten dugunean, bi norabidetan banandurik dakusagu Plentzia: Butroi ibaian barrena, Mungia ingururantz doana eta bestea Bilborantz zabaltzen dena.

Plentzia hiri barruko dinamika horiek azpimarratu ondoren, erakundetze arloan, bigarren ingurune nagusia Bizkaia izango da. Bestetik, euskara bide zutelarik, beste hiru edo lau herrialdeekin osatzen zuen elkartasuna, Euskal Herria nabarmenduko genuke eta horrez gain Erresuma, Espainiako Erresuma izango dugu ere beste esparrua. Eta XIX mendean, erresumaren inguraldia, ez da penintsulara mugatzen. Plentziako batek, Liverpool barrena, Filipinaseko beste batekin aukera zuen harremanen iraunkorra mantentzeko. Eta noski horrek beste ikuspuntu bat sortzen du, seguruenerik gaur eguneko gazte batek ezin deza-keena lortu. Orain asko hitz egiten delako mundu global batez eta globalizazioari buruz, baina XVIII eta XIX mendeetan horretaz hitz egin ez arren, kostaldeko hirietan, esperentziaz



Plentzia, (1846) Juan Eustakio Delmasen marrazkia eta litografia, ondoko liburuan argitaratua: *Viaje pintoresco por las provincias Vascongadas: [obra destinada a dar a conocer su historia y sus principales vistas, monumentos y antigüedades, etc., en láminas litografiadas copiadas al daguereotipo y del natural por J.E.D. y acompañadas de texto.* Bilbao, Imprenta N. Delmas, 1846. 51 orr.

bizi ohi zen. Orduko familian eguneroko bizipena dugu itsasoen barrena esperientzia globalak izatea eta ezagutzea.

Erresuma aipatzerakoan, bereziki, Espainiakoa aipatu behar dugu, bertan kokatzen delako Plentzia. Baina euskal jendea, Euskal Herria bi erresumetan zuen sustraia Frantziakoan eta Espainiakoa. Aztergai dugun garai honetan, XIX mendean, biak inperioak ziren, hau da, erresuma transozeanikoak ziren eta beraz, portuak eta Plentzia moduko guneak, erresuma-inperioan zeregin bereziko guneak ziren. Lotura guneak alegia. Itsasoa bitartean zegoelarik, portuak garrantzizkoak ziren loturarako. Frantziako eta Espainiako Erresumak Europako potentzia monarkiko nagusien barruan kokatzen ziren, eta Erresuma Batuekin (U.K.) etengabeko lehiak eta gerrak gertatzen ziren. Itsasoak kontrolatzen zuena, bere inperio edo erakundetzearen nagusitasuna lortzeko bidea errazten zuen. Itsasoa zegoen benetako lehia XVIII mendean eta itsasoa Erresuma Batuak nagusitza lortu zuen. Horrela XIX mendean, Erresuma Batuan zer gertatzen ari zen jakitea premia zkoa zen, tokian tokiko egoera ulertzeko. 1840 urteaz geroztik, *Pax Britanikak* eraldaketa eta ondorio nabarmenak eragingo zituen Europa osoan, eta neurri oso handi batean, gerra karlista amaitzeko bitartekaritza lana burutu zuen. Sarritan aipatzen dira Rafael Maroto eta Baldomero Esparteroren izenak 1839ko Bergarako bake itunaren inguruan, baina bakearen benetako gidatzailea ez zen hauetako inor izan, Erresuma Batuko parlamentuan zegoen Palmerston (1784-1865) baizik eta bere jokabidea nazioartean ezinbestekoa da, ondo ulertzeko gerra zibil karlistaren amaiera. Erresuma Batuko

“Foreign Secretary” eta atzerri arazoetako ministro burua izan zen 1830 tik 1841 arte. Eta gerra karlistan eragin zuzena izan zuen, lehendabizi “Legio britanikoa” antolatuz eta kostalde honetan kokatu zen, liberalen alde egiteko. Eta ondoren, ikusirik indarraren bidez ezin zela gerra amaitu bestelako estrategia batean sartu zen, foruen eta bakearen estrategiaren bidetik alegia. Beraz, Erresuma Batuko lehen ministroak markatu zituen, bere aginduz, eraginez eta armadaren laguntzaz, gerraren norabideak bereziki Euskal Herrian, Foruak eta bakearen bandera karlismoa ahultzeko eta azkenik zati bat Bergarara hitzarmenera biltzeko.

Beraz, horra mikrohistoria eta historia nagusia biak loturik eta elkar trabaturik aztertzea premia dugu. Plentzian gertatu zena ulertzeko nazioarteko egoera, Portugaletik Erresuma Batura gertatzen ari zen Europaren zatiketa, liberal eta absolutisten artekoa, garrantzizkoa dugu. Karlistek Europako erresuma absolutisten laguntza izan zuten bitartean, liberalek nazioarteko aliantza antolatu zuten, hau da, Erresuma Batua, Frantzia, Portugal eta Espainiaren arteko aliantza alegia.

Baina bestalde edozein gerrarekin berdin gertatzen ohi den antzera, geure buruari egin behar diogun lehenengo galdera, eta agian oinarritzkoena hauxe: Eszenategi horren baitan, gatazka nola eta zergatik piztu egin zen eta zergatik matxinada izatetik gerra zibil luzea bihurtu zen. Horrexegatik, hori argitzen saiatuko naiz, zerk eragin zuen lehen uneko erregezale karlisten saiakera porrotean amaitu ostean, handik gutxira pixkanaka gerra gordina bihurtzea?<sup>1</sup> Honetaz aparte, Uribe Kostako herri honek jasandako setio esperientzia azaltzen saiatuko naiz ere. Bilboko setioari buruz hainbat liburu eta literatura idatzi izan da, baina ez dago horrenbeste Plentziako setioari buruz. Hala ere, European ez dugu XIX mendera joan beharrik setio esperientzia ikusteko, oraintsu Sarajevon gertatu izan baita beste setio egoera bat. Beraz, kontuan eduki behar dugu, setio egoerak bereziak baina berdintsuak direla hiribilduetan, nahiz eta kronologia desberdinean gertatu. Esperientziaren arloan gertatu ohi zen unean desberdintasunak egon daitezke baina bestalde esperientzia bere horretan berdintsua dugu.

Bestetik, 1833ko gerra hau ulertzeko, aurrekariak eta giroa oso inportanteak dira. Giroa eta aurrekariak ez dute gerra bat determinatzen, gatazka armatuak pizteko beste gauza asko eta une konkretuak daudelako bitartean, baina giroaren analisiak hurbilpen errazago batera eramaten gaitu. Agian gerra hau ez zen 1833 urtean hasi, bere aurrekariak lehenago bilatu behar direlako, 1822an jadanik. Espainiako erresuman 1812ko Konstituzioa zen lege nagusi araugilea. Euskal Herrian “*mendi mutilak*” armatu ziren sistema liberalen aurka. Hau da gerrilla antolatu zen berriz ere agintean zeudenak agintetik kentzeko. Eta 1823an, Europako erresuma absolutisten laguntzaz, gerrillariak irabazi egin zuten. 1812ko Konstituzioa kendu eta Erregearen aginte absolutua nagusitu egin zen berriz ere. Eta gerra ziklo hau ez da amaituko 1839 arte.

Aldi berean, Europa pilpilezko aldaketa giroan zegoen eta bi iraultza gertatzen ari ziren, batetik liberala eta bestetik industrialia. Prozesu hauek, nahiz eta historialariok askotan oso modu polit eta sinplean azaldu, ez dira gertatzen bat-batean eta era korapilatsuetan gauzatu ziren, bai Plentzian, European zein munduko gainerako edozein lekutan.

---

1. Honen inguruan, aurreko batean hemen Plentzian, Gorka Mayorrek galdera berbera egin zuen eta horixe argitzen saiatuko gara.

Iraultza liberalaren aldaketa abiaduran eta bilakaeran bi eredu izango ditugu. Batetik Frantziakoa zegoen. Kasu hau matxinada baten bidez gauzatuko zen, eta gutxi batzuen eskutik hasitako mugimendua matxinada orokorragoan hezurramitu zen. Hortik giza eskubideen lehenengo deklarazioa, 1789an Frantzian antolatu zen behin behineko Asamblean sortu eta aldarrikatu zen. Baina lehenago, Ameriketako kolonia ohiak izan ziren Estatu Batuetan baita ere pertsona guztien eskubideen aldeko lehen aldarrikapenak egin ziren, independentzia lortu bidean, 1776an, zoriontasunerako. Independentzia eta zoriontasuna bat egiten zuten ipar Amerikarren aldarrikapenean. Hala ere, gizakien aldeko lehen deklarazio hauetan emakumeak kanpo geratu ziren, eta horrek zenbait eztabaida eragin zituen. Adibidez, Donibane Lohitzuneko emakumeek idatzi bat bidali zuten Parisera, non emakumeen boto eskubidea aldarrikatzen zuten. Hau, 1792 urtean gertatu zen, eta erakusten digu dagoeneko kostaldeko emakumeak gizonetzkoen parekoak sentitzen zirela. Seguruenik, nahiz eta emakumeak itsasora ez joan, lehorreko egunerokoan gauza berdinak egiten zituzten erabateko autonomiaz. Hala ere, eskakizun hauek ez ziren Parisen onartuak izan. Ez da kasualitatea portu bateko emakumeak izatea. Donibane Lohitzune edo Plentzia moduko portuetan emakumezkoek erantzukizun osoak izaten zituzten etxeko ondasunen kudeaketan. Beraz emakumezkoak egunerokoan gizonen pareko zirenik frogatu beharrik ez zegoen, eguneroko bizitza esperientzia baitzen. Baina portuko hiribilduetako emakumezkoen esperientzia eta ohitura horrek ez zuen isla publikorik izan erakundetze liberal berrian.

Baina Frantzian iraultza liberala horrela gertatu bazen ere, matxinada baten leherketa eta bilakaeraren bidez, erro errotik erabat erakundetze publikoa erabat aldatuz, beste herrialde gehienetan aldaketak pixkanaka gertatu ziren, aldaketaren nahia eta ezinaren artean. Hauxe dugu XIX mendean barrena Europako herrialdeen kasua eta tartean Euskal Herrian eta Espainian gertatu zena. Hain oreka handia zegoen, azkenik gerra zibil zabal eta irekiak ere gertatu zirela.

XVII eta XVIII mendean barrena, Bizkaian eta Euskal Herrian matxinadak ere gertatu ziren. Herria “emozionatu” egiten zenean manifestazio bat antolatzen zuen, hau da kalez kale, hiribilduetan ibiltzen zen txistu eta danbolinarekin. Protesta egiteko modua zen. Orduan ez zeuden gaur eguneko eskubideak eta aldarrikapenak eta populua edo herri xeheak bidezkoa ez zela zerbait uste zuenean, aldarrikapena tokian tokiko udaletxearen aurrean egiten zuen. Eta udaletxean handikiak, “eukitsuak” biltzen ziren eta beraien kontra agertzen ziren. Handikiak horrelako ekimen eta matxinaden beldur izaten ziren baina arauz kanpokoa izan arren horrelako protestaldia eragina izaten zuen. Euskal Herrian gertatu zen azken matxinada handia 1766koa dugu. Eta matxinada honetan gero XIX mendean barrena agiri ziren portaerak agiri ziren, bereziki populua gogoa eta ikuspegiak, errealitate soziala eraldatzeko moduari dagokionez. Populua subjektibitasun jakin bat bereganatzen eta akumulatzen joan zen, herrian “egiak” izango direnak. Mesfidati agiri zen handiki eta merkataritza bitartekarien aurrean. Eta kultura eta ikuspegi herritar horrek iraun egingo zuen. Forma eta adierazpide desberdinez joango da azaltzen.

Laburbilduz, Europa azkeneko 200 urte hauetan gerra oso bortitzen eszenatoki izan da. Kontuak ateratzen baditugu, egoera benetan izugarria da. 1793 eta 1945 urte bitartean egondako gatazka armatuetan hainbat miloi pertsona hil egin zen eta kostu handia izan ohi da Europaren historian barrena.

### 3. IRAULTZA LIBERALA, GERRA GIROAN UMATUA: HERRITARREN PENTSAMOLDEAK

1793 urtean Frantziako Konbentzioko gerrak, kontinente osoan eragin handia eduki zuen baina Euskal Herrian ere berebiziko garrantzia izan zuen. Gatazka honen eraginez, ez Plentzia bakarrik, Europa guztia murgilduta egongo zen gerra giroan, eta Europako ikuspuntutik, hau gerra zibil moduan ikusi behar dugu, toki guztietan barne gatazkak eragin zituelako. Azken batean Frantziako errepublika eta Europako erresuma monarkikoak, Europa barneko herrialdeak ditugu. Erbestea agiri ohi da diskurtso ugariaren erdigune giza, baina zer da erbestea lege zaharrea? Beharbada erbestea ez da hain nabaria, Erresuma bakoitzeko Gorte agintetik aldenduz gero. Erregearen Gortea zen izatez erresumaren erdigunea eta ondoko guztia erbeste gradiente gisa agiri zen.

Bestalde, Euskal Herria Frantzia eta Espainian sartua egonik, bere esfera berezia daukalako, berez bien erbeste periferikoaren eremua zen. Bi erresuma hauek konposatuak ziren, “*reinos compuestos*”, hau da, bazegoen erregea, baina bazeuden baita tokian tokiko aginteak. Konkretuki Bizkaiak bere Batzar Nagusiekin aginte indartsu bat zeukan. Koroa edo Erregea herrialde ugariaren arteko oreka batasunaren adierazle ziren baina tokian tokiko aginteak sarritan “*pays d’etats*” esaten direnen antzera, bertako egituren bidez antolatutik zeuden, eguneroko arazo publikoen erabakiak hartzeko.

Beraz, lurralde honetan, European moduan, hainbat gerra edukiko ditugu. Lehena jadanik aipatu dugun Konbentziokoa izango zen. Haren eraginez Frantziako errepublikanoak etorriko ziren Euskal lurraldera, eta beraiekin batera idea liberal berriak barneratuko zituzten. Denbora laburrean haien eragina nabarmena egingo zen, batez ere Gipuzkoan, buruzagien gehiengo errepublikarren aldeko bihurtu baitzen. Baina Gipuzkoan bertan, beste buruzagi batzuk aldiz Espainiako erregearen alde, fedearen eta erlijioaren alde egin zuten eta ohiko erakundetzearen aldeko helburuak defendatzeko, Espainiako alegia, Mondragonen beste Diputazio berri bat deitu eta antolatu zuten. Hau da beste Diputazio bat, gerra garaiko diputazioa deituko dena. Bizkaian ere Espainiako erregearen aldeko eraketa agirikoa zen, tartean Marques de Valdespina, Ermuako buruzagia agiri zen. Gero pertsonai hau 1833an, gerra karlista piztu zutenen arteko buruzagia izan zen Bizkaian. Beraz, horra gerra guztien lotura eta ibilbidea, sarritan pertsona eta buruzagi bertsuak tartean agiri zaizkigularik.

1794koa lehendabiziko esperientzia izan zen. Eta eredia errepikatu egin zen. Hurrengo gatazka eta gerra 1808-1814 urteen bitartean biztu zen, “*gerra de la independencia*” delakoa eta euskarazko testuetan frantseseta deituko zena. Hemen baita tokian tokiko asko ere frantziarren alde agertu ziren.

Bestalde, gerra honek ziklo bat abiatu zuen: 1808tik 1876 arte belaunaldi guztiak gerra era zuzenean ezagutu eta bizi izan zuten, 20 urtetik 20 urtera gerra bat gertatu zelako Euskal Herrian. Eta gerra bere osotasunean, ez lehenago aipatu ditugun unean uneko matxinadak. Oraingoan, hasiera bateko matxinadak ondoren benetako gerra bihurtzen ziren. Eta XIX mendeko gerran, populazio zibilak gerra giroa jasan egiten zuen. Lurraldeak okupatzen ziren eta lekuak, posizioak defenditzen ziren. Beraz, armada profesional batzuen arteko guda ez ezik, herri osoak bizi zuen gerra giroa.

Beraz ikusi beharko dugu Plentzia zein posizioetan zegoen, hau da noren agindupean gerra zibilaren barrenean, unean uneko egoeran. Ikusi luze sakonean jarraituz, 1876tik

aurrera badago etenaldi bat, 30 urte ingurukoa, baina ez askoz gehiagokoa. Eta azkenik 1936 urtean beste gerra bat izango dugu. Beraz, horra egoera gogor eta odoltsua Euskal Herriak bizi izan zuena.

Agjnteari dagokionez, Bizkaiko batzar nagusiak ditugu agintari alde batetik. Bertan Plentziak ordezkaria zuen. Eta Batzarretan Diputazioa aukeratzen zen. Honen agindua, arlo judizialean eta politikoa zuen eragina. Bestalde, erregearen ordezkaria Korregidorea zen. Azkenik aipatu XIX mendean *Irurac Bat* izeneko erakundetzea sendotu egin zela. Hau da hiru herrialdeetako ordezkariak biltzen ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, arazo komunak ezbabaidatzeko eta *de facto* elkarte politikoa sorturik

Bestetik, Plentziari erreparatuz, esan beharra dago herri honek garai honetan garrantzi oso handia zeukala. Itsasoaren bidezko komunikazioak aukera handiak eragiten zituen. Betalde, portuen liberalizazioak aukera paregabeak eskaintzen zituen, Ameriketako merkataritza garatzeko bereziki. Bilbo eta Donostia adibidez, portuen liberalizazio horretatik kanpo geratu ziren, aduanak ez zirelako kostaldera eraman nahi. Baina 1828tik berri liberalizazio hori lortu bidean zegoen. Historia zaharra dugu portuen liberalizazioaren ingurukoa. 1779 urtean, Muzkizen Erret Ordenaren bitartez, euskal portuentzat debekua etorri zen, harik eta barrualdeko aduanak, Ebro ibaian kokaturik zeudenak kostaldera aldatu arte.

Plentzian 1830ean, merkataritzara loturik zeudenak seguru asko aduanen aldaketaren alde egongo ziren. Baina hau zehazki aztertu beharko da. Ez dut ezagutzen honetaz ikerketa sakonik. Horra etorkizunari begira ikerketa lan zehatza. Baina egoera 1841 urtean aldatu egingo da, orduan aduanak portuetara, kostaldean, ezarri zituelako B. Esparterok egin zuen lege aginduaren bidez.

Bestetik, Zamakoladako matxinada dugu beste fenomeno garrantzitsua. 1804an, Bilbo aldeko herrietan gertatu zen. Plentzia ez da agiri baina seguru ere Plentziak horren berri izan zuela. S. Zamakola erregezalea zen, erlijioaren defentsa eta Jaurerriko agintea sendotu nahi zuen, Bilboko erakundeen aurrean. Horregatik portu berria Abandon burutu zuen eta horretarako Erresumako agintari zen Godoyrekin egin zuen hitzarmena. Bizkaiak ere aurrerantzean soldaduak bidaliko zituen. Baina herritarren artean matxinada eragin zen. Kultura herritarrean agintarien aurrean mesfidati ziren. Garaiko bertsoak irakurri behar dira. Bilboko Frantziskotarren komentuan buru zen Pedro Astarloak euskara eta erdara nahastuz egindako zenbait bertso ditugu adibide argi.

Viva y siempre viva  
Eusquel Erria  
Y viva el Mesias  
Maisu zoria  
Y tambien viva  
Eusquera apainduarte  
Nuestro Don... viva

Fr. Pedro Astarloa (1803)

P. Astarloa oso pertsona argia zen, hau da, garaiko intelektual bat. Gainera teologo honek bere sermoiak euskaraz egiten zituen, eta bere bertsoan Euskal Herriari egiten dio erreferentzia, komunitate moduan azalduz eta euskara indartuz.



Zamakoladaren aldekoak, “viva el rey y viva erlijioa” esango zuten. Eta horretaz Bizkaia sendo bat eraiki nahi zuten. Bestalde, beste batzuk ez ziren “*viva el rey y viva la religion*” horren hainbeste alde agertuko. Interesatzen zaiguna, dagoeneko 1804 urterako bi foku definiturik zeudela. Bestetik, Zamakolaren matxinada ez zen Bilbon bakarrik fokalizatu, Bizkaia guztian izan zuen nolabaiteko isla.

Beste alde batetik, frantsese prozesuarekin batera, (1808-1814) gerrillen eraketa izango zen. Jende zibila, gerran parte zuzena hartzen du. Gerrillak bizimodu berri bat eskaintzen zuen, eta garaiko bizi baldintza zailetan aukerakoa zen. Hauen helburua armen bidez aginte politikoa eskuraztea zen. Esperientzia honek erabat markatuko du Euskal Herria, gaur egun ere gerrillaren pentsamenduarekin ari diren taldeak topatu daitezkeelako. Eta nortzuk izan ziren gerrillari famatuak: haien artean Artzaia, Zumalakarregi, Zabala, Longa eta Mina izango ditugu. Longa Pedro Astarloaren iritzian jatorrizko euskaldun militarren eredu zen. Gero gerrillari hauek gerra karlistan bando bietan topatuko ditugu. Adibidez Zabala, eta Zumalakarregi karlisten aldean antolatuta ziren bitartean, bestetik, Mina eta Artzaia (Jauregi) liberalekin borrokatu zuten.

1810ean, lurralde hau Frantziako erresumaren zati izan zen eta ofizialki Parisetik agindua izango zen. Bizkaiko Gobernuak, Donostian zeukan hiriburua eta gobernuburu moduan Thouvenot jenerala jarriko zuten eta Nafarroan Dufour jenerala.

Egoera honen aurrean aberatsak hirietan babestuko ziren, eta horrela gerrillaren bidezko bizimodua indartu egingo zen. Beraz, gerra amaitzean hainbat jende gerrillari moduan jarraituko zuten, baina oraingoan bandolero edo gaizkile moduan definituko ziren. Hauek Euskal Herriko gune guztietan aurkitzen ziren, pobrezia handiegia zegoelako, eta mantengairik eta jateko ez zeukatelako behar beste, beraz bide hauek jarraitzea bideratu zen hemengo jende asko. Giro honetan, bandolero famatuak agertzen hasiko dira, eta hemengo zonaldeari dagokionez, Juan Antonio Madariaga, “Patakon” ezizenez, izan zena, nabarmendu behar genuke. Patakonek lapurretak zonalde honetan egiten zituen, Unbe ingurua oso aproposa zen ibiltariak atrakatzeko. Hala ere, bere helburua aberatsei kentzea zen, lortutakoa ez zeukanari emateko, horrela saltzen zuen bere burua. Horregatik bere mitoa Txorierri inguru osoan arin zabaldu bazen ere, argi eduki behar dugu talde hura ez zela mito bat izan, errealitatea baizik, eta beste hainbat talde eratu zirela Euskal Herrian.

Garai berean, Cadizen, 1812an nazio berri baten aitortpena izango dugu, Espainiarena. Eta ez penintsulako Espainiarena bakarrik, aldarrikapena Filipinaseraino iritsiko baita. Cadizen Espainia “*nación unica*” moduan definituko da eta konstituzio baten eraketari ekingo zaio. Hala ere, hau ez da guztiz onartua izango eta Batzar Nagusietan tirabirak eragingo zituen. Adibidez Bizkaia, 1813an, armen bidez, derrigortua izan zen zin egitera Konstituzioa, baina 1812an Batzar nagusiak bi konstituzioen elkarkidetzara erabaki zuten: Bizkaiko Konstituzioa eta Espainiako Konstituzio. Biak parez pare indarrean izatea eskatzen zen, bien arteko lotura eginez.

Berriz ere, beste bertso bat aztertuko dugu garaiko mentalitatea ulertzeko. Frantsesak joan ziren eta Fernando VII erregea bihurtu zen. Konstituzioa kendu egin zuen eta aginte absolutua indarrean jarri.

FERNANDO VII ERREGE

Poztu gaitezan  
Eskerrak millaz Jaunari.  
Mesede handijak  
eginagaitik  
gure Españaiko  
lurrari  
Iñok elexien kontra  
ezer esaten dau?  
ez ejozu parkatu  
barriketa zital hau.  
Garbirik jaon daizun  
zure elijiñoia  
irme sendatu eizu  
inkisizinoia.”

Abando (1814)

Bertso hauek Bixenta Moglek idatzi bide zituen. Bertsolaria fina zen, eta oso pertsona kultua. Emakume hau, Abandon bizi zen eta bertso onak egiten zituen, Ideologikoki ere oso bertso interesgarriak dira, jadanik garai honetan generoko historiaz hitz egiten duelako. Gizon mozkorti eta beti taberna zuloetan daudenen kontra idatzi zuen, eta emakumeak jo egiten dituztela mozkorti gizonezko hauek salatu egin zuen. 1819 urteko bertsoak dira. Emakumeen kontrako tratua ez da gaur eguneko kontua, orduan ere denuntzia bat bazegoelako. Bixenta Mogelen beste bertso honetan baita ideologia agiri da, euskaltasunetik abiatuz baina ohiko independentzia eta nortasuna aldarrikatuz.

Ez aldean guk galdu  
herriko legea,  
eta antxinatik, dogun  
geure euskerea.  
Gogoan beti euki  
lehenengotik oná  
sartu ez dala arrotzik  
agintetan oná.

Giro honetan sortu zen, J.M. Zavalak bildu zuen Antxinako euskaldunen alabantzak deitzen direnak. P. Astarloak edo B. Moglek agian eginak. Bertso hauetan galdetzen da, zergatik dagoen honenbeste kezka eta ezinegona eta burruka Euskaldunen artean eta erantzun egiten du:

Gordetarren zintzoro  
jaunaren fedea  
geure lege garbiak  
geure euskerea

Beraz, hemen dugu programa eta ideal politiko ideologiko argia, herritarren artean gihartu zena eta ondoren, liberalen aurkariak zirenak aldarrikatu zutena. Bertsoetan borrokarako deia ere egiten da, nortasuna, euskara eta lege garbiak defendatzeko.

#### 4. LIBERALAK ETA ERREGEZALEAK ETA ONDOREN KARLISTAK (1820-1833)

1822an, gerrillak antolatu ziren konstituzioaren aurka. Zabala zen burua Bizkaian eta 1823an aginteak sartu ziren, Europako erresuma absolutisten laguntzarekin. Gerrillariak buru abadeak ere izan ziren, Gorostidi Gipuzkoan. Baina azpimarratu behar dugu gerrillari hauen esperientzia. Konstituzio liberalaren aurkari zuzenak ziren eta borroka Bizkaian ohikoak izan ziren. Mendi-mutilak edo gerrillariak taktika jakin bat antolatu zuten: Ekintzak egin eta desagertu. Ekintzetariko bat zen hirietan sartu su eman eta alde egin. Adibidez Durangon. Zabala Mungijakoa zen eta seguru asko inguru honetan ere ibiliko zen. Juan Jose Moguel abadeak, Markinan honelakoak idatziko zituen, 1823an:

Euskaldun garbi sendo  
prestu ta nobliak  
gorde gaura ditubez  
asabeen legjak  
mutilak horretarako  
armetara dira.  
Zarrak bere nahi leuke  
gaztiak balira.

Juan Jose Moguel. Markina (1823)

Beraz, abadeek armak hartzerantz deitzen zuten jendea. Batez ere, euskaldun garbiak, nobleak eta lege zaharra defenditzeko. Hemen egingo du bere agerraldia Lege Zaharreko pentsamoldea, eta dakigunez horren kontra lege berria egongo zen. Horregatik esperientzia hau, 1824tik 1833 urtera gerra karlistaren lehen aldia izan zela azaldu behar genuke. Ez dago gerra irekia antolaturik baina erakundeak bereziki Diputazioak gerrarako prestatu ziren, fedea, koroa eta foruak defendatzeko alegia.

Baina gerra karlistak Euskal Herian izan zuen arrakasta ulertzeko, hamar urtea hauetan diputazioek bereganatu zuten indarra kontuan hartu behar genuke ere. Gaur eguneko diputazioen indarra ezagutzen dugu, euskal erakundetzean eta garai honetan finkatu zen. Diputazioek erresuma absolutistaren barruan kompetentzia berriak irabazten joan ziren. Adibidez, poliziaren kompetentzia. Pentsa dezagun, lehenengo napoleonarrek eta ondoren absolutistek, poliziaren antolaketa burutu zuten. Fernando VII garaian, poliziaren egitekoa zen, besteak beste, liberalak aurkitu eta atxilotu. Hau da zeregin politikoa zuen. Eta Diputazioek jende guztia kontrolatzea zuen helburu nagusia. Polizia eraketa diputazio bakoitzaren kompetentzia zela adieraziko zen. Horrez gain, "Bizkaitar armatuak" izeneko talde politiko-militarra sortu zuten, Bizkaiko Diputazioaren bidez gidatutako erakundeak. Bere helburuak, Altarea (erlijioa), Tronua (erregea) eta Foruak defendatzea ziren. Baina hau ez zen hemen bakarrik gertatu. Espainiako gainerako probintzietan "*voluntarios realistas*" izenarekin ezagunak egin ziren talde armatu eta politiko hauek. Erakunde antiliberalak zen erregezaletasunaren kultura politikoa landu zuten, ohiko lege zaharraren aldekoak ziren, aldaketaren aurkari zuzenak.

"Bizkaiko armatuak", herriz herri antolaturik zeuden eta urtero mobilizatu egiten ziren ariketa militarretan jaiok izateko. Modu horretan, populazioaren erabateko kontrola lortzen zuten, urtero desfileak eginez. Beraz herritarren artean gihartu egin zen antolaketa politiko-militarra. Hirietan ere bai baina bereizketa gertatzen zen. Konstituzio liberalaren garaian, 1820an milizia liberalak antolatu baziren, beste era batera baina lege zaharrekoan

aldekoak bere indar politiko militar propioa antolatzea lortu zuten. Gainera Diputazioak hainbat arma erosi zituen, beti ere liberalerai aurre egiteko. Diputazioak borrokarako prestatu ziren. Adibidez, Bizkaiko diputazioaren aurrekontuetan %30 armak erosteko enplegatzen zen, 1824, 1825 eta 1826 urteen bitartean.

Aldi berean, zonalde guztietan lehen aipatutako gaizkileak ditugu, eta Patakon eta beste zenbait mendiz mendi zenbiltzan. Beraz, bide lapurreta eta gaizkileen bandolerismoa gorantz zihoanez, biztanleriaren kontrola berreskuratzeko pasaporteak jarriko ziren indarrean. Pasaportea beharrezkoa zen herrien arteko bidaiak egiteko, pertsona bat Bilbotik Plentziara joateko, baimena eskatu behar zion diputazioari eta pasaportea atera. Eta berdin gertatzen zen Madrilera joateko. Pasaportea deskripzio fisiko bat zen, ez zegoen argazkirik baina deskribapen fisikoak oso zehatzak ziren.

1827 urtean erregezale sutsu batzuk Katalunian altxatu egin ziren, Fernando VII erregeak burutzen zuen gobernuaren aurka, Araban ere bai. Baina Bizkaiko Diputazioko buruak, Valdespinako markesa eta P. Novia de Salcedo ez ziren mugitu, Fernando VII erregearen alde jarri ziren. Gainera erregezale erradikal horiek erreprimitzeko erabakia hartu zuten, eta horrela, 1827 urterako, indar armatu guzti horiek kontrolpean edukitzea lortu zuten.

Baina egoera aldatu egin zen 1833 urtean. 1832an, Bizkaiko barrutietako Bizkaitar armatuen buruzagitzan lehia zegoen eta gorago ere bai, hau da Diputazioaren helburua zen, barruti guztietako "Bizkaiko armatuko" buruak kontrolatzea. Bilbon berriz erregezale antiliberalak, Ronda kalean biltzen ziren eta bertatik bere eragina gidatzen zuten Bizkaiko armatuen buruzagitzaren alde jartzeko. Liberal ildokoak aldiz Bizkaitar armatuak desarmatzeko bidean jarri nahi zituzten. Gipuzkoan *Tercios forales* delakoen eragina mugatzea lortu zuen Diputazioak eta beste horrenbeste nahi zuten Bizkaiko liberal ildokoek. Horregatik 1833ko Batzar nagusiak garrantzitsuak izan ziren bereziki Diputatu nagusien hauteskunde prozesua alegia. Azkenik bi diputatu nagusi ziren atera ziren: P. Uhagon eta F. Zabala, bi muturrekoak, liberala lehendabizikoa eta erabat erregezalea bigarrena, laster karlista izenez karlisten buruzagi bihurtu zena. 1833an bizkaitar armatuen kontrola isilpean eztabaidatua izango zen eta talde politiko militar honen kontrola erregezale sutsuenak lortu zuten. Guztira 10.000 pertsona inguru antolaturik zeuden.

## **5. KARLISTEN MATXINADA MILITARRA: GERRAREN ALDIAK 1833-1839**

Gerraren bilakaeran honako aldiak bereizten ditugu:

1. 1833: lehen uneko garaipena. Bilbo karlisten buru.  
Plentzia: Karlisten kontrolpean: Mungiatik 1833 Urriak 8 abiatu ziren eta bere agindu ezarri zuten.  
1833.XI.16an armada liberala Bilbon sartu zen eta Plentzia ere ohiko agintarien eskuetara bihurtu zen.
2. 1833-1835: Etxarri Aranazen Zumalakarregi karlisten buru, F. Zabalaren ordezkari izan zen. Gerrillarien taktikak indarrean jarri zituen eta pixkanaka, euskal lurraldea bere kontrolpean ezartzea lortu zuen.  
Plentzian 1834an Esparterok defentsak sendotu egin zituen.

3. 1835-1837: Madrillera abiatu zen Erret espedizioa.  
1836: Plentzia Egja jenerala sartzen da. 800 preso hartu. Baina Bilbon ez zuten lortu sartzerik.  
Madrillera abiatu zen armadak porrota jasan zuen.
4. 1837-1839: Zatiketak, karlisten baitan eta gerraren zama herrian astuna bihurtu zen. “Westminsterreko Parlamentuan eztabaida eta gerra amaitzeko aukerak aztertu ziren. Foruak eta Bakearen ikuspegia zabaltzen hasi zen.  
Espainiako Parlamentua: Konstituzio berria. 1837.  
1838-39: Plentzian berriz karlistak sartu ziren.
5. Oñatiko hitzarmena: 31-X-1839 eta Bergaran armadak bildu eta bakea irudikatu zuten. Asko bereziki Nafarroa eta Arabako batailoiak ez ziren bakera bildu eta atzerrira joan behar izan zuten.

## **6. 1833KO URRIA ETA AZAROA: MUNGIAKO BIZKAITAR ARMATUEN BRIGADAREN EKINTZABIDEA**

Gerraren hasieran Mungiako “Bizkaitar armatuen” brigadak berebiziko garrantzia izan zuen. Mungiatik atera zen lehen unean Karlista armatuen buruzagia izan zena, Fernando Zabala, harik eta Zumalakarregik buruzagitza hartu arte. Horra ondoren, nora joan ziren, leku estrategikoak hartzera:

1. Boluetako Zubia hartu (7-X-1833) Bilboko sarrera kontrolatzeko.
2. Bestale, bi konpañia “de la mayor confianza” ondoko portuetara abiatu ziren, bertan liberal girokoak izango zirelako: Plentzia, Bermeo, Mundaka (8-X-1833).  
Buruzagiak: Fernando Zabala eta Pedro Antonio Ventades.
3. Batailo bat Orduña (9-X-1833).
4. 12-X-1.833, Boluetatik etxera. Baina ez Plentziatik eta Bermeotik.
5. Somorrostro 24-X-1833.
6. Berriz Bolueta 15-XI-1833. Sarfield liberala zetorrela.
7. Sodupe: Ezkutatu. F. Zabala (18-XI-1833).

1833ko urriaren 3a, jakin zenean Fernando VII hil egin zela, arratsaldeko bostetan Bilbon “*Guardias de Honor de Bilbao*” taldekoak atera ziren. Bizkaitar Armatuen ildoko erakundea zen: talde politikoa, armen jabeak eta kontrairaultzaileak. Erregea Carlos izan behar zela aldarrikatzen zuten. Talde honen buruak ziren: Francisco Javier Batiz, Antonio Gomez de la Torre eta Pedro Novia de Salcedo. Bilboko udala ere, une horretan erregezaleen aldeko pertsonaien esku zegoen. Bilbo altxatu ziren erregezaleen agindua eta helburua Diputazioa okupatzea izan zen. P. Uhagon zegoen legezko Diputatu nagusi eta M. Mota zen korregidorea. Bien atzetik joan ziren eta agintetik kendu egin zituzten eta Diputazio berri bat antolatu zuten. Bizkaito Diputazio berrian, Carlos erregearen aldeko erregezaleak jarri ziren. Aurrerantzean, karlistak deituko ziren. Diputatu nagusi berriak izendatu ziren: Bat Gernikan aukeratua izan zena, F. Zabala bestea altxatu zen buruzagi bat F. J. Batiz. Bilbon “*Estado Mayor General del Ejército Real de Vizcaya*” sortu zuten. Aldi berean Mungiako Bizkaitar armatuak eta Enkarterrikoak antolatu eta matxinatu ziren. Plentzia, Mungiako Bizkaitar

armatuen barrutian zeuden. Buruzagiak: F. Zabala eta P. Ventades erregezale porrokatuak eta inguruak berehala kontrolatu zituzten.

Antzeko matxinadak antolatatu ziren Euskal Herrian eta Espainian. Baina Bilbon bakarrik izan zuen arrakasta. Ondoren Urriaren zazpian Gasteizen izandakoak arrakasta izan zuen eta karlisten kontrolpean Gasteiz-Bilbo lerroa gertatu zen. Gerra aurrera joan ahala, Bilbo liberalismoaren gotorleku bihurtu bazen, hasieran hilabete eta erdi, karlisten hirigune nagusia izan zela aitor genezake. Hasiera honetan beraz, Bilbotik gidatu zen erregezale karlisten ekimenak.

Urriaren 7an, Bizkaitar Armatuen Brigadako Mungiaiko Bizkaitar armatuak, F. Zabalaren buruzagitzapean, Boluetako zubia hartu zuen. Boluetako zubia puntu oso estrategikoa zen, Bilboko sarrera zelako. Adibidez Napoleonen tropak ere zubi hori zeharkatu sartu ziren Bizkaiko hiriburuan.

Horrekin batera, Zabalak “*de la mayor confianza*”ko bi konpainia Plentzia, Bermeo eta Mundakara bidali zituen portu eta hirien kontrola eskuratzeko. Honek erakusten du hirigune horiek ez zirela karlisten konfiantzazkoak eta horregatik okupatzeko agindua eman zuen. Beraz, Mungí aldean eta Plentzian, mobilizazio militar hauen lehen buruzagi eta gidatzaileak Pedro Antonio Ventades eta Fernando Zabala agiri ziren. Biak oso pertsona ezagunak: Fernando Zabala gerrillari moduan hasi zen Napoleonen aurka eta ondoren 1822an konstituzio liberalaren aurka. Pedro Antonio Ventades jurista famatua bihurtu zen Bizkaiko Batzar Nagusietan. Mesokrasiaren alde zegoen, hau da, handikien kontra eta erdi mailako baserritar eta merkatarien alde. Batzar Nagusi zabalagoak, herriz herriz eginikoak eta ordezkapenak zuzen zuzenekoak herri bakoitzean egin behar zirela aldarrikatu zituen, handikien agintea mugatzeko, hau da, ordezkari bakoitzak ordezkapen bat baino gehiago ez zuela izan behar. Sarritan, baten batzuk, handikiak, herri bi edo hiruren ordezkaritza bereganaturik zuela salatu zuen.

Mungiatik beste batailoi bat Orduñara ere joan zen. Azpimarratzekoa Mungí aldeko brigaden ekimena. Beraz, karlista altxamenduaren gune gunea zen Mungí aldeko eskualdea. Ez ordea Plentzia eta Bermeo hiribilduak.

Hala ere, urriaren 12an Boluetara joandako *Bizkaitar armatuak* etxera itzultzeko agindua hartu zuten baina ez Plentzia eta ez Bermeon zeudenak. Hemen *Bizkaitar armatuen* presentzia beharrezkoa zen, populazioa eta portuaren kontrolerako. Fernando Zabalaren gidaritzapean, Mungí aldeko Bizkaitar armatuak Boluetako zubia 1833ko azaroaren 15ean okupatu zuten, Madrilleko agintearen aginduz Bilborantz abiatzen zen armadari aurre egiteko asmoz. Espainiako erresuman Isabel II, Fernando VIIren alaba bihurtu zen legezko erregina. Baina haurra zenez gero, ama Maria Cristina, gobernatzeko arduraren hartu zuen harik eta Isabel nagusia izan arte. Espainiako armadak Nafarroan erabat desegin zuen matxinada eta oraingoan Pedro Sarsfield jeneralaren buruzagitzapean Gasteizera eta Bilbora abiatzen zen. F. Zabalak berehala konturatu zen armada liberalaren kontra Bilbo Boluetan babestea, ezinezkoa izango zela eta azaroaren 18an alde egitea erabaki zuen.

Sarsfield jeneralak, Peñacerradan karlisten aurka irabazi ondoren, arazo barik sartu zen Gasteizen eta ondoren Bilbon, 1833ko azaroaren 26an. Ez zuen erresistentziarik izan. Eta une horretan bazirudien kontrolpean zuela egoera. Baina karlistak Bizkaian barrena zabaldu ziren.

Bizkaitar armatuen artean, asko ezkonduak ziren eta ez zuten borrokarako gogo bizia erakutsi. Adibidez, Tolosa (Gipuzkoan) eraso zutenean Bilboko buruzagitzak M. Bengoetxeari zera gomendatu zion heriotzak saihestea: “cualquiera desgracia voluntaria que ocurriese podría ser muy trascental al sosiego publico y al bienestar de las familias de los muchos casados que se hallan entre las filas de los vizcainos”<sup>2</sup>.

## 7. NORTZUK MUGITU ZIREN?

Sarritan aipatu ohi da, karlisten matxinadan 1833an herria bere kabuz altxatu zela eta horrela biztu zela gerra. Bolondresak zirela. Baina aurreko kontakizunean azaldu dudan legez, hasiera horretan, borrokalari karlistak pertsona zibil antolatutakoak ziren. “*Paisanos armados*” eta euskaraz “Bizkaitar armatuak” izeneko taldekoak ziren. Talde zibila, herri guztietan antolatutako zegoena. Beraz, zibilak ziren baina guzti hauek, armatuak eta entrenatuak egon ziren, ohizko Bizkaitar armatuen erakundean. Jerarkia militarren arabera antolatutakoak egon ziren: Bizkaitar armatuen komandanteak 28 errealek eguneko kobratzen zuen eta ohizko bizkaitar armatu batek eguneko bost errealek, hau da beste lanbide batean zegoen soldataren beste.

Bizkaitar armatuak Urriean Gipuzkoa bere kontrolpean hartzerantz joan zirenean, Eibarrera heldutakoan arazoak sortu ziren, aste bat zeramatelako kobratu gabe, eta orduan soldata lortu arte ez zirela mugituko erabaki zuten. Egoera honen aurrean lider karlistak Bilboko aberatsak gogor hartu zituzten eta halabeharrezko zerga eta maileguak eskatu zituzten. Horrela, Bizkaitar armatu mobilizatuen egitura, armada profesional baten antzera antolatzeko, dirua lortu zuten eta soldatapekoak ziren partaideak.

Beraz, Bizkaitar armatuentzat armekin ibiltzea eta herririk herri joatea, ofizio berri bat izan zen. Kontuan izan behar dugu urria zela eta urriean ez dagoela udaran bezain beste lanik ez soldatarik. Horregatik, gauzak zeuden moduan ikusirik, bost errealek kobratzea nahiko ondo zegoen. Gipuzkoatik hainbat Bizkaitar armatu etxerako bidea hartu zuten. Ez zuten borrokarako gogorik izan. Beste asko indarrez behartutakoak izan ziren baina aukera izan zutenean, etxera itzuli ziren.

Orduan azaroan Sarsfield heldu zen armada liberalarekin, iparraldeko frontea erabat deuseztatzeko nahiarekin. Horrela, azaroaren 26an tropa hauek Arabatik Bizkaian sartu ziren, karlista asko etxera bueltatu ziren, hauetako inor ez zelako ausartzen armada profesional bati borrokan aurrez aurre egitera.

Momentu honetan orduan bazirudien gerra amaitu egingo zela, jadanik abendurako deuseginda baitzegoen hasierako mugimendu guztia. Beraz Plentzia ere ohiko agintaritzara igaro zen.

Baina karlisten ekimenak ez zuen guztiz porrot egin. Bigarren aldi bat hasi zen. Fernando Zabala, Simon de la Torre, Bizkaiko beste eskualdeak kontrolatzen saiatu ziren. Gerrillarien teknikak antolatzen hasi ziren. Bestalde, Amezkua eskualdean (Nafarroan) Zumalakarregi

---

2. Bizkaiko Foru Artxiboa. Gemikako Batzar nagusietako artxiboa. Seguridad pública, 287 erregistroa.

egon zen eta armada profesional baten itxuraz, beste egitura bat sortu zuen eta aurrerantzean berak gidatuko zuen armada karlista. Amezkoa gerrilla “fokista” baten hasiera eta abiapuntua izan zen: Lur zabala kontrolpean nahi zuten eta bertatik hiriak eraso. Eta gerrilla teknikak, frantsesen aurkako gerran Zumalakarregik hain ondo ikasi zituenak, indarrean jarri zituen.

Beraz Plentziari dagokionez, bigarren aldi honetan, hirigunea zenez gero, berriz ohiko indarrak agintean zeudenak aurrerantzean “liberal konstituzionalak” bihurtu ziren. Baina eskualde inguruan, F. Zabala eta bere mutilak zeuden.

Zumalakarregik ez zeukan dirurik soldaduak pagatzeko. Azkenik, erreal bat eta erdi bakarrik ematen zion bakoitzari eta horrekin soldaduak berak lortu behar zuen janaria eta jantzia. Beraz garai berrian ezin dezakegu esan oso ofizio onik zela soldadu karlista aritzea.

Zumalakarregik foku bat bere menpe izan eta erasoei ekingo zion, hasieran hauek Nafarroarantz eta Gipuzkoarantz bideratuz. Dinamika honetan, urte batean, ia Bizkai osoa, hiriak ezik, Gipuzkoako zati handi bat eta Nafarroako Ipar mendebaldea bere kontrolpean hartu zuen, baina kostaldea ez eta hiriburuak ere ez.

## **8. LIBERAL AGINTARIEN ASMOA, PLENTZIA ETA KOSTALDEKO HIRIAK GOTORTU**


Beraz ba, Plentziako kasuari dagokionez, gerraren lehen fasetan karlisten menpe egon zen, urriaren 8tik azaroaren 26ra, hau da Bilbon Sarsfield sartu arte baina abendutik aurrerantzean, Plentziako kasuari dagokionez, gerraren lehen fasetan karlisten menpe egon zen, urriaren 8tik azaroaren 26ra, hau da Bilbon Sarsfield sartu arte baina abendutik aurrerantzean egoera aldatu egingo zen. 1834an Espartero heldu zen herrira. Honen helburua ez zen lurra kontrolatzea, hiribilduak babestea baizik. Ikusi zuenez gerra luze joko zuela eta iraunkortasuna bermatu behar zela. Desgaste gerra batean sartzen ziren. Horregatik erabaki zuen garrantzitsuena gotorlekuak lortzea zela, bertatik errazago izango baitzitzaieen erasotzaileen ekintzak gelditzea. Lekeitio, Plentzia, Bermeo, eta Bilbo bezalako hiriguneak gotortu egin zituen.

Karlistak 1834an Plentzia eraso egin zuten. Itsasoz sartu ziren eta bertoko arrantzale txalupak eta abar desegin zituzten.

Giro horretan, Plentzia setiorako prestatzen hasi zen eta neurrietariko bat zubia apurtzea izan zen, hobeto isolatzeko.

Karlistek Bilbo erasotzen saiatu ziren 1835ean. Lehen setioa antolatu ere bai eta bertan zauritu ondoren Zumalakarregi hil zen. Karlisten porrot handia eta aldi berean gerraren aldeko moral psikologikoan ere eragina izan zuen.





Iturria: Antonio, Pirala. *Historia de la Guerra Civil, y de los partidos liberal y carlista, tercera edición corregida y aumentada con la historia de la regencia de Espartero*. Madrid: Felipe González Rojas, 1889. Tomo I, 976-977. Koldo Mitxelena Kulturunea. Gipuzkoako Foru Aldundia.

## 9. PLENTZIAKO SETIOA: 1835

1835 bukaeran, karlistak, Bilboren aurkako setioan porrot egin ondoren, nahiko burumakur zeuden. Hurrengo urtean karlisten buruzagitza, militar absolutista eta zaharkiturik zegoena hartu zuen: Egia jeneral karlistaren helburua zen, beste hiri batzuk hartzen joan, armada karlista indartzeko eta ondoren Bilbori berriz ekin. Pertsonai zaharkitua zen honezkero, absolutismoaren ikurra, 1814an jadanik Fernando VIIaren agente absolutistaren alde matxinatu zena eta Konstituzio liberala ondorioz ezabatu egin zuten. Karlisten artean prestigioa zuen eta militargintzan esperientzia luzekoa. Lehendabizi Balmasedako hiria eraso egin zuen eta hartu. Laster Plentziaren aurkako erasoaldia prestatu zuen eta menpe hartzeko asmoz, Barrika inguruan eta Plentziaren Hego-ekialdean kokatu zen. Barrikatik zailtasun handiak zeudenez gero, zubia apurturik zegoenez gero, hego partetik Plentzia erasotzea planifikatu zuen. Baina, Plentzian ez zen Bilbon antolatu zen indarra setio egoerari aurre egiteko. Gainera, setioan zeuden batzuk arin alde egingo zuten, Aberasturik adibidez eta ondoren Guriezon agiri da 1840an itsas untzigintzan<sup>3</sup>. Hau tenientea zen, pertsona argia eta artilleroen burua. Azken batean, Plentziak ez zuen behar besteko laguntzarik lortu gortorleku egoki bat eraikitzeko.

3. Setioari buruz eta gerrako giroa Plentzian aztertzeko, ikus: MAYOR LOPEZ G. "Sobre la primera Guerra Carlista en Plentzia". In: *Plentzia de Butron-Plentzia-Plentzia. Apuntes II*. Bilbao, 1998; 71-96 or.

Espanian, 1836an, liberalen artean zatiketa gertatu zen eta karlisten aurkako gerra une batez bigarren mailara igaro zen. Alde batetik liberal sutsuak zeuden, “*exaltados*”, eta bestetik kontserbadoreak edo “*provinciales*”. Batzuk nahi zuten “*la España Provincial*” eta liberal sutsuak aldiz Espainia asko ere zentralizatuago bat. Gerraz aparte hau liberalen baitan zegoen beste borroka izan zen. Beraz bazeuden bi fronte Karlistak eta Liberalak, baina liberalen barruan badago beste tirabira indartsu bat, sutsuak eta kontserbadoreak. Gainera, bien armaden arteko diferentziak oso nabarmenak ziren, Plentzia ez zen Bilbo bezain handia eta hona ez zen hainbesteko material eta indar armatu mobilizatu.

Guzti honengatik Plentziak gutxi eutsiko zion karlisten setioari.

Dena den, hemengo mikrohistorian etenaldi bat egin beharko genuke, oso garrantzitsua delako ere, herriko historia hauetan, bertokoen izenak hartzea eta tartean nortzuk ibili ziren Plentzia karlisten erasoetatik defenditzen, jakitea. Lehen esan dugun moduan populazioa banatuta zegoen, eta horren ondorioz zenbait talde desberdin eratzen hasi ziren, beraz, orain haiek aipatzea eta bertan parte hartutako zenbait pertsona izendatzeari ekingo diogu. Adibidez, “*Batallon de Mujeres Hurbanas*” 1834 urtean sortzen da, Francisca Gonzalez komandante zela eta Virginia Sabaterrekin laguntzaile karguan. Gero baita “*Batallon de Hurbanos*” egon zen, milizia liberala. Honako honetan Pedro Antonio Arekoetxea izan da kapitaina, Juan Bautista Gana tenientea eta Migel Aberasturi subtenientea. Azken hau Migel Aberasturi izango da lehen aipatutako artillerotako burua.

Plentziaren aurkako setioan, Gaztelako talde karlista armatuak (Merinoren kastellanoak, Urbano Aguilar Moreno buru zela) agiri zaigu.

Azkenik, 1836 urteko otsailaren 25ean, hiru eguneko setioaren ondoren kapitulazioa etorri zen, orduan sartu zelako Egia Plentzian. Hainbat preso egin zituen. Besteak beste, 27 emakume “urbana” eta bere bandera eta ikurrak Carlos Erregeari bidali zizkion:

Los carlistas encontraron en la hermosura de aquellas nuevas amazonas armas mas temibles para rendir a los valientes que el débil fusil y la pequeña canana que completaba su equipo; y el general Eguia mandó recojer(sic) su bandera para evitar que los facciosos se quiesen alistar en las filas del bello sexo placentino<sup>4</sup>.

Liburu batzutan 800 preso egin zituela irakurri dut baina ez dut aurkitu egiaztaturik<sup>5</sup>. Asko dira garaiko biztanleria aintzat harturik.

Espaniako Cortes delakoetan, (1835) Salamancatik “prokuradore” izendatua izan zen Benito Alejo Gaminde, Bilbotar merkatari argia eta boteretsua. Merkatari hau ardien artilezko produktuetan aditua zen eta Bilboko merkatarien buruzagia eta aldi berean liberala. 1836an adierazi zuen Plentzian preso hartu zirenak meategietan indarrez lanean jarri ziztuztela. Baina Karlisten *Gaceta Real* delakoan hori ez dela egia adierazi zuten: “que los heróicos nacionales de Plencia trabajan en la minas con el agua hasta medio cuerpo es otra invención de S.S.” *Gaceta oficial*, 24 de mayo de 1836.

---

4. RODRÍGUEZ GARCÍA, F. *Crónica del Señorío de Vizcaya. Crónica general de España*. Madrid, 1865; 122 or.

5. OYARZUN, R. *Historia del Carlismo*, 1944; 74 or. “800 prisioneros” aipatzen du.

GACETA



OFICIAL.

## ARTICULO DE OFICIO.

*S. M. sigue sin novedad en su importante salud.*

*De igual beneficio disfruta S. A. R. el Serenísimo Señor Infante DON SEBASTIAN GABRIEL.*

*Las últimas noticias que se han recibido de Leibach aseguran, que continúan en aquella Ciudad sin la menor novedad en su importante salud S. A. R. el Serenísimo Señor PRÍNCIPE DE ASTURIAS, los Serenísimos Señores Infantes DON JUAN CARLOS y DON FERNANDO MARÍA, su Augusta Tía la Serenísimísima Señora Infanta DOÑA MARÍA TERESA, y la Serenísimísima Señora Infanta DOÑA MARÍA AMALIA.*

*Partes recibidos en la Secretaría de Estado y del Despacho de la Guerra.*

*Ejército Real.*—Parte de la toma de Plencia.—Exmo. Sr.—Segun manifesté á V. E. en el parte de ayer al amanecer rompió el fuego la artillería de batir contra el castillo, y abierta brecha con el mayor acierto á pocos tiros, apesar del foso que lo circula, le tomaron por asalto, marchando á él con la mayor serenidad la compañía de granaderos del 1.º de Castilla en cabeza, y con ella las de Tiradores del mismo, y del 2.º tambien de Tiradores de Castilla; en su consecuencia, continuando sus disparos la de campaña y montaña, aunque sin efecto decisivo, y en medio de las dificultades que ofrecia trasladar la de batir para operar contra las demas obras de este pueblo, defendido con la mayor tenacidad, tanto ayer como hoy, por su guarnicion y urbanos, resolví mientras variaban los fuegos, sustituirlos con los de fusilería, arrojando tambien algunas granadas; y ejecutada la formacion de una nueva batería intimé la rendicion que se ha verificado bajo la capitulacion, cuya copia incluyo con el Núm.º 1.º.—A la verdad, que no esperaba el enemigo verse en semejante situacion con la extraor-

dinaria brevedad con que lo han puesto en ella las tropas del REY N. S., estando defendido por 13 cañones, los urbanos, la guarnicion y artilleros que contiene la relacion Núm.º 2.º; pero todo lo vence la bizarría de estos valientes que tengo el honor de mandar, cuyo mérito excede á todo elogio. Los batallones que han concurrido á los ataques y toma de este pueblo son, parte del 3.º de Guipúzcoa, del 6.º de Vizcaya y del 2.º de Castilla; el 1.º de este nombre, el 2.º de Tiradores del mismo, y la compañía de Guías, que se han conducido con el arrojo que acostumbran; asi como con la mayor brillantez y decision, los Reales cuerpos de artillería é ingenieros, habiéndose hallado el 2.º y 5.º de Navarra, el 4.º de Guipúzcoa, 4 compañías del 2.º de Castilla, 4 del 3.º de Guipúzcoa, y el escuadron expedicionario que no merecen menos consideracion, en posicion sobre las avenidas de Bilbao y Portugalete; no pudiendo menos tambien de expresar que el Gefe de E. M., los Subdelegados Inspectores de infantería y caballería, los ayudantes de aquel, los míos, uno de los cuales fue herido á mi inmediacion al ir á comunicar órdenes, y cuantos individuos me han acompañado, han llenado completamente sus deberes en los tres dias de fuego, en todos los que no hemos sufrido mas pérdida que la de 26 hombres entre muertos y heridos; cuando la del enemigo es casi igual, reservándome para con datos mas circunstanciados que debo reclamar, puntualizar nominalmente los cuerpos y personas que mas se han distinguido, con expresion de los premios á que los considero acreedores. Se han ocupado los efectos de guerra, y las subsistencias que comprenden, las notas núm.º 3.º y 4.º, extendidas por aproximacion porque no ha habido aun tiempo para formalizar los inventarios, asi como 2 banderas de la plaza, pues la guarnicion no la tenia; y resultando que existia tambien una seccion de 27 urbanas, que queriendo imitar la exaltacion de los revolucionarios, han dado en ello una prueba inequívoca de su extravío, tan reprehensible como indecorosa y contraria á la educacion, costumbres y ocupaciones de su sexo, he acordado, para que no quedase impune tan notable conducta, impo-

(184)

nerles la multa de 3.000 duros mancomunadamente, que debe hacer el ayuntamiento electivo, bajo su responsabilidad, en el término de 24 horas, entregándola al Ordenador del ejército.—Al formar la guarnición para desfilarse á su destino, á voz unánime victoreando al REY N. S. han solicitado, igualmente que los artilleros, servir en su Real ejército, á cuya primera manifestacion no quise acceder, ni tampoco á la segunda; pero repitiéndola por tercera vez, y explorada ademas Individualmente su voluntad, penetrado de que era espontánea y decidida condescendi con sus deseos, de cabo inclusive abajo, como está mandado por S. M., é interin pasan al 4.º de Castilla, han quedado agregados en pequeñas secciones á los batallones que tengo á mi inmediacion, habiendo marchado al depósito el gobernador, oficiales, sargentos y urbanos. Todo lo que tengo la satisfacion de comunicar á V. E., á fin de que se sirva elevar al REY N. S. este nuevo triunfo de sus victoriosas armas.—Dios guarde á V. E. muchas años. Cuartel general de Plencia 25 de Febrero de 1836.—Exmo. Sr.—El Conde de Casa-Eguía.—Exmo. Sr. Secretario de Estado y del Despacho de la Guerra.

Núm.º 1.º

D. Antonio Sanchez, capitán del Real cuerpo de artillería, comisionado por el Exmo. Sr. Conde de Casa-Eguía, general en jefe del ejército del REY N. S. DON CARLOS V., y D. Pedro Bahamonde, capitán del regimiento provincial de Mondoñedo, nombrado por el Gobernador de Plencia para la capitulacion de la misma, hemos convenido en los artículos siguientes:

1.º La guarnición, igualmente que todos los urbanos serán prisioneros de guerra, y conducidos á uno de los depósitos de esta clase.

2.º Los gefes y oficiales conservarán sus equipages, y los soldados de la guarnición sus mochilas bajo la responsabilidad de los gefes, de no llevar mas prendas que las de su pertenencia, permitiéndose á los primeros llevar hasta el depósito los caballos que no sean de marca, que se los recogerán en aquel punto, entregando en éste los que la tengan, igualmente que sus espadas.

3.º El Gobernador dispondrá que en el acto se haga la entrega por inventario de todos los efectos de guerra, vestuarios y subsistencias que existan en la plaza.

4.º El pueblo será respetado, debiendo el ayuntamiento bajo la responsabilidad personal de sus individuos formar una relacion de todos los urbanos, y otra de las urbanas, las cuales sufrirán mancomunadamente una multa proporcionada á sus fortunas.

5.º El ayuntamiento será tambien responsable de que ningun vecino ni habitante oculte ni retenga efectos de ninguna clase, que no sean de su pertenencia, y procedan de los almacenes de la plaza, ó de cualquiera otra dependencia pública, quedando los infractores sujetos á las penas que se dicten.

Y habiendo merecido la aprobacion del refe-

rido Exmo. Sr. General en jefe y del Gobernador citado, la firmamos en Plencia á 25 de Febrero de 1836, á la una de la tarde.—Antonio Sanchez.—Pedro Bahamonde.—Es copia.—Eguía.

Núm.º 2.º

*Relacion de la guarnicion de Plencia y urbanos que han quedado prisioneros de guerra.*

Gobernador el teniente coronel D. Rafael Alvarez Castañon, capitán del provincial de Oviedo. Regimiento provincial de Mondoñedo: tres capitanes: un ayudante: tres tenientes: un subteniente: un capellan: doscientos diez y siete sargentos, cabos y soldados. Cuerpo de artillería: diez y nueve artilleros. Urbanos: dos capitanes: un teniente: dos subtenientes: cincuenta y un sargentos cabos y soldados. Cuartel general de Plencia 25 de Febrero de 1836.—El Conde de Casa-Eguía.

Núm.º 3.º

*Relacion de los efectos de guerra ocupados en la toma de Plencia.*

Artillería: una pieza de calibre de 24: dos de 18: dos de 12: dos de 8: una de bronce de id.: una de 6: una de bronce de 4: tres de montaña. Armamentos de la guarnición: 268 fusiles con sus correspondientes correages, y 36 cañanas. Municiones: polvora de granel 5 barriles: cajones de cartuchos de fusil 4: barriles de id. 4: paquetes de cartuchos de id. 300: un cajon de granadas de mano: cartuchos de mosquete 120: sobre 200 balas de 8, 18 y 24. Cuartel general de Plencia 25 de Febrero de 1836.—El Conde de Casa-Eguía.

Núm.º 4.º

*Relacion aproximada de las subsistencias halladas en los almacenes de Plencia.*

Doscientos sacos de habichuelas: setenta sacos de arroz: trece barricas de tocino: tres barricas de vino: dos barriles pequeños de vino de Málaga: una barrica de aguardiente: treinta y cinco sacos de harina: cincuenta cajas de galleta. Cuartel general de Plencia 25 de Febrero de 1836.—El Conde de Casa-Eguía.

Exmo. Sr.—Hacia algun tiempo que los enemigos que existen en los pueblos á la orilla opuesta del Arga, se jactaban de pasearse en pequeñas partidas, validos de la poca fuerza que teniamos en estos puntos, y principalmente por la falta de los puentes; pero queriendo escarmentar su osadía y hacer que se respeten las siempre vencedoras armas del REY N. S., me trasladé el 17 del actual de esta ciudad á la villa de Mañeru. Al siguiente dia me dediqué á reconocer aquellos vados, los cuales hallé bastante crecidos; no obstante, el dia de ayer marché con unos 100 infantes y 20 caballos hasta la orilla del rio que se halla entre Puentelareina y Mendigorria, mas conociendo que era imposible vadearlo la infanteria sin una grande exposicion, dispuse se quedase en el mismo punto acompañada de 10 caballos y 70 con los restantes, entre los que se en-

Egia jenerala, Plentzia sartu ondoren, berehala udaletxe berria antolatzeari ekin zion, eta martxoaren 9an alkate eta aginterako, Francisco Duo, Juan Domingo Fullaondo eta Jose Uribe jarri zituen. Udaletxe berri honen antolakuntza Egiaren onespenezekin osatu zela eta karlisten aldekoa zela. Argi eduki behar dugu, nahiz eta setio egoeran bizi, Plentzian ere, batzuk karlisten aldekoak izan zirela.

Plentziaren konkista karlisten artean albiste garrantzitsua bihurtu zen eta horregatik, Egiak eginiko txostena, karlisten *Gaceta oficial*, delakoan, 1836ko martxoaren 1ean argitaratu zen. Amaieran eranskinean argitaratzen dugu.

Liberalen txostenean zera agiri zen: Karlisten artean hainbat heriotza eragin zituztela. Cordoba jeneralaren txostenak adierazten zuen 331 soldadu karlista hil zituztela. Hala ere horrelakoak adierazten zituzten, nolabait beraien burua zuzitzeko<sup>6</sup>.

Ondoren, Egia jenerala Lekeitio eraso zuen eta hartu ere bai.

Dena dela liberalen indarrek berriz eraso egin zuten Plentzia. 1836ko maiatzaren 21ean ingeles armadaren laguntzaz, berriz hartua izan zela, Baionatik jasotako berrien arabera<sup>7</sup>.

## 10. GERRAREN AMAIERA

Baina 1839 urtean, karlisten gerratea amaitu zen baina ez ordea Catalunyan. Zergatik? Berriz nazioarteko ikuspegia hartu behar dugu ondo ulertzeko. Gerraren norabidea, alde bietako lurralde posizio batean egonkorturik zegoen, ez atzera ez aurrera, bakoitza bere eremuan Euskal Herria bihurtu zen karlista gerratearen erdigunea. Eta Bilboko liberalen batzuen iritzian, Bizkaiko Diputazio probintzialaren buruak zirelarik, 1838an zera adierazi zuten: gerra horrela luzatu ezkerero gero “nazionalitate” gerra baten itxura hartzeko arriskua zegoela eta horregatik albait arinen bukatu behar zela aldarrikatu zuten. 1838an, besteak beste Foruak eta bakea izeneko egitasmoa indarrean Espainiako gobernuaren isileko eragin eta ordainez, Muñagorrik bideratu zuen. Baina karlisten armada oraindik indartsu agiri zen.

Palmerstonen ikuspegia eta erabakia, Erresuma Batuko atzerri politika bideratzen zuena alegia, oso garrantzitsua izan zen gerra bukaeran. Erresuma Batua, munduko inperio nagusia antolatzen ziharduen. Palmerstonek interes handiak zeukan gerra honekin bukatzeko, bere helburua “*la cuestion de oriente*” kontrolatzea eta Turkia ingururantz bideratzea zen. *Pax Britanica* delakoa, indarrez aplikatzen hasi zen. Europako herrialde liberalak sendotzeko bidea hasi zuen. Horrela Palmerstonek Westminsterreko Parlamentuan aitortuko zuen, gerrarekin amaitzeko beharrezkoak izango zirela konstituzio berrian euskaldunen eskariak kontuan hartzea eta betetzea, eta noski eskubideak, indibidualak eta herrialdeetakoak ere konstituzioan babestea. Beraz, erabaki hauen bidez aurrerantzean bateratu behar ziren

---

6. Liberalen *Gaceta de Madrid* 16.III.1836 adierazten omen zuen: “Según informe del general Cordoba 331 soldados carlistas muertos en el asalto frente a los 20 que reconocían los carlistas”. Karlisten *Gaceta Real* 15 de abril de 1836 ez dela egia adierazi zuen.

7. *Niles weekly register*, (Vol 50). Baltimore. Iturria, Baionatik jaso zuen gutunean dago.

Foruen agintea eta konstituzioa eta Espainiako konstituzio liberala. 1837ko Espainiako Konstituzioak ez zuen aintzat hartzen Euskal herrialdeen Foru berezitasunak, hau da “Foru Konstituzioa” Areago, lege berezi baten bidez, euskal foruak Espainiako Parlamentuak 1837an ezabatzea agindu zuen. Dirudienez ez zen nahiko Konstituzioak euskal foru sistema ez onartzea. Espainiako Gobernuak Legezko agindu berezia erabili zuen modu argian ezabatzeko.

1838an, Bakea eta Foruak izeneko politika indartu egin zen, soluziobide gisa. Eta horretan oinarriturik 1839an Bergarako Bake hitzarmena egin zen eta ondoren 1839ko urriaren 25ean Espainiako Parlamentuak berriz Foruak indarrean jartzeko legea onartu egin zuen, Konstituzioaren baitan, alegia.

Ondoren 1840an, armada liberalak Catalunyan gerra amaitzea lortu zuen.

Gerra amaieran Plentziak berriz lortuko zuen bake giroa. Baina udalaren aurrekontua eta ogasuna erabat zorpeturik zeuden. Hainbat zor zegoen eta beraz garai berriari aurre egiteko, kalteak bideratzeko eta zorrak kitatzeko herri ondasunak salgai jarri ziren: Basoak, mendiak, padurak, zilegi lurak zirenak saltzen hasi zen. 1841ean, aduanak kostaldean jarri ziren eta Plentziak beste historia berri bati ekin zion.

Laburbilduz, Plentziak setio egoera baten esperientzia gogorra jasan zuen eta beraz biztanleriaren arteko zatiketa eta tirabira. Gerra bere gordintasunean jasan zuen. Plentziako liberalak, preso hartu zituzten eta erbestera joan beharra izan zuten ondasunak hondaturik ikusi zituzten. 1839an itzuli zirenak, bizitza berriari ekin behar izan zioten. Beste batzuk gehiago ez ziren itzuli. Oraindik egin gabe dago lehen gerra zibil honen ebaluazio sozial zehatza, zenbat heriotza, gizartean gertatu zen urradura eta eten sakona eta abar. Aipatu dugu, “zilegi lurak” galdu egin zirela eta gerraren ondorioz, Plentziar guztiak txirotu egin zirela. Zerbitzu publikoak murriztu lehen unean behintzat Udala zorpeturik zegoelako. Arlo materialean gertatu zen hondamendia ere erabatekoa izan zen. Egiteke dago alderdi bietan, liberal eta karlisten arteko hilen eta desagertuen zerrendak. Eta hau mikrohistoriaren bidez, ahaideak aztertuz baino ez dugu lortuko. Gerra giroak azken batean hondamendia ekarri zuen eta Plentziak berriz herrigintzan eta gizartegintzan hasi beharra izan zuen.

## 11. BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, J. “La via armada como método de intervención política: Análisis del pronunciamiento carlista” (1833). In: *150 años del Convenio de Bergara y de la Ley del 25\_X\_1839*. Vitoria: Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco, 1990; 177-226 or.
- . (Zuzendaria): *Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos*. Donostia: Lur Argitaletxea, 2004, IV liburukia.
- . “Bilbo aldeko euskaltasun politikoaren ahotsen literatur moldeak eta ideologia ildoak: Jose Paulo Ulibarri eta Cosme Belaunde, herri literaturaren adierazle (1812-1839)”. In: *Bidebarrieta*, 19. zenb. Bilbao: Bidebarrieta Kulturgunea, (Ayto de Bilbao), 2008; 105-162 or.
- ALTZIBAR X. “Bizenta Mogelen gabon kantak eta 1828ko bertsoak”. In: *Bidebarrieta*, 19 zenb. Bilbao, 2008; 26-104 or.
- FERNÁNDEZ GAYTAN J. “La marina carlista en las guerras civiles del siglo XIX”. In: *Revista de Historia naval*, 1988, nº 20; 5-31 or.

- MAYOR LÓPEZ, G. "Sobre la primera Guerra Carlista en Plentzia". In: *Plasentia de Butron-Plencia-Plentzia. Apuntes II*. Bilbao, 1998; 71-96 or.
- PARDO SAN GIL, Juan. "Las operaciones navales en las Guerras Carlistas". In: *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 5. Donostia: Untzi Museoa-Museo Naval, 2006; 433-466 or.
- . *Diccionario universal de historia y geografía*. Madrid: Francisco de Paula Mellado, 1848.
- ZAVALA, A. *Frantzesteko bertsoak*. Tolosa, 1991; I, II.
- ZAVALA, J.M. *Fábulas en dialecto vizcaino*. Bilbao: A, 1986, Zelaieta.